

## **EBAZPENA**

Julián Ríos Santiago jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarrak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkariak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa; BAO n argitaratua 2019/07/11ko 132. zenbakian), honako hau erabaki du 80/2020/DL zk.dun espedientearen inguruan

Jarraian aipatzen den programa erregulatu duen araudia dela-eta, eta Hiritarrak arloko presidentearen proposamenari ekinez, honako hau da programaren testua:

**DURANGOKO UDALAREN ETA TABIRA  
MUSIKA BANDA ELKARTEA  
"TABIMUSIKA" REN ARTEAN IZENPETUTAKO  
HITZARMENA**

**BILDURIK:** Batetik, JULIÁN RÍOS SANTIAGO jauna, NAN 30.662.165-Z, DURANGOKO UDALEKO 1. Alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak lagundurik, NAN 30.616.524-M.

Eta, bestetik, JOSU OTXOTORENA ZABALZA jauna, NAN 15.852.959-W, IKF G48732879 duen TABIRA MUSIKA BANDA ELKARTEAREN presidente moduan.

## **RESOLUCIÓN**


Don Julián Ríos Santiago, como 1. Teniente de Alcalde delegado del área de Ciudadanía, en virtud de la delegación acordada por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el «BOB» número 132 de 11 de julio de 2019, ha dispuesto con relación al expediente 80/2020/DL, lo siguiente

En relación con la normativa que regula el programa referido a continuación y a propuesta del Presidente del área de Ciudadanía y cuyo texto íntegro es:

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE  
DURANGO Y LA ASOCIACIÓN TABIRA  
MUSIKA BANDA ELKARTEA "TABIMUSIKA"**

**REUNIDOS:** De una parte, Don JULIÁN RÍOS SANTIAGO, con D.N.I. nº 30.662.165-Z, 1. Teniente de Alcalde del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido de la Secretaria General Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, con D.N.I. nº 30.616.524-M, que da fe del acto.

Y de otra, representada por JOSU OTXOTORENA ZABALZA, con D.N.I. nº 15.852.959-W, en su condición de presidente de la asociación TABIRA MUSIKA BANDA ELKARTEA con CIF G48732879.



**DIHARDUTE:** JULIÁN RÍOS SANTIAGO jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarrek arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkariak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa); BAOn argitaratua 2019ko uztailaren 11ko 132. zenbakian; TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak, Udaleko Idazkari Nagusi moduan eta JOSU OTXOTORENA ZABALZA jaunak, TABIRA MUSIKA BANDA ELKARTEko presidente moduan eta berau ordezkatzuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorritz.

**AITORTU ONDOREN** batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

#### **ADIERAZTEN DUTE**

I.- TABIRA MUSIKA BANDAREN helburua, beren estatutuen arabera, honako hau da: alde batetik, musika eskolako ikasleen ezagutzak praktikan jartzeko aukera ematea eta, bestaldetik, musika bera hedatzea kontzertuen bidez, hau da, musika klasikoa, euskal musika, herriko musika, e.a. Halaber, antzerako ekitaldietarako eskatzen zaien lankidetzak eskaintzea.

**ACTUAN:** El 1. Teniente de Alcalde, Don JULIÁN RÍOS SANTIAGO, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el BOB número 132 de 11 de julio de 2019; Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, en su calidad de Secretaria General del Ayuntamiento y Don JOSU OTXOTORENA ZABALZA, como presidente de TABIRA MUSIKA BANDA ELKARTEA, en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su Junta Directiva.

**RECONOCIÉNDOSE** las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

#### **MANIFIESTAN**

I.- Que la BANDA DE MUSICA TABIRA tiene como fin fundacional, según su norma estatutaria, la de ofrecer sobre todo a los estudiantes de la escuela de música la posibilidad de poner en práctica los conocimientos adquiridos y difusión de la música en general en todos los ámbitos, música clásica, música vasca, obras populares... a través de los conciertos que ofrecen y la colaboración en todas aquellas actividades que en este sentido le sean demandadas.



II.- Durangoko Udalak lankidetzaz-esparru bat formalizatu nahi du TABIRA MUSIKA BANDA-rekin, aipatutako ekintzak sustatzeko interes amankomuna bideratzeko asmoz. Horrexegatik, ondorengo lankidetzaz-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituen.

### **BETEBEHARRAK**

**DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.-** Durangoko Udalak 16.146 (HAMASEI MILA EHUN ETA BERROGEITA SEI) euroko diru-laguntza emango dio TABIRA MUSIKA BANDARI. Ordainketa 61.3300.48101 diru partidaren kargura egingo da. Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.

### **TABIRA MUSIKA BANDAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.-**

.- "Tabira" Musika Bandak ekintza musikalak antolatuko ditu. Orientagarri moduan, antolatutako ekintzak hauexek izango dira:

- Erregeen kabalgata.
- Surrandien kalejira
- San Fausto jaietan bi kontzertu: Barandiaran egoitzan eta Andra Marian.
- Santa Cecilia eguneko kontzertua.
- Gabonetako kontzertua eta Olentzerori harrera.

II.- Que el Ayuntamiento de Durango desea establecer un marco estable de colaboración con LA BANDA DE MUSICA TABIRA, en aras a la consecución del interés concurrente de la promoción de la actividad referida. Es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que contiene las siguientes

### **CLÁUSULAS**

**COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.-** El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 16.146 (DIECISEIS MIL CIENTO CUARENTA Y SEIS) euros a la BANDA DE MUSICA TABIRA, con cargo a la partida 61.3300.48101, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente.

### **COMPROMISO ASUMIDO POR LA BANDA DE MUSICA TABIRA.-**

.- La Banda de Música asumirá la organización de diversas actividades de índole musical, actividades que de forma orientativa en cuanto a su naturaleza se presentan a continuación:

- Cabalgata de Reyes Magos.
- Pasacalles de Surrandiak
- Dos conciertos en fiestas de San Fausto: residencia Barandiaran y Sta Maria.
- Concierto de Santa Cecilia
- Concierto de Navidad y recibimiento a Olentzero.



.- Ekintzok iragartzeko jarriko den publizitatean, Durangoko Udalaren logotipoa agertuko da ondo ikusteko moduan.

.- Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutzera ematea iragarkiak, oharrak eta gainerako komunikazioak. Eta propagandarekin ere gauza bera egin behar dute, ahoz zein idatziz. Betebehar hau dirulaguntza justifikatzeko orduan egiaztatu behar da.

.- Jasotako dirulaguntza justifikatzea, dagozkion egiaztagiria aurkeztuta eta **2021eko otsailaren 26a baino lehen.**

**DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.-** Durangoko Udalak honela ordainduko dio TABIRA MUSIKA BANDA-ri. %80a hitzarmena indarrean sartzen den hilabeteko azken astean ordainduko da. Gainerako %20a, dirulaguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko dirukopuruarengatik.

**IRAUPENA.-** Hitzarmena bertan behera geldituko da 2021eko otsailaren 26an.

.- Colocar en lugar visible, en toda la publicidad que se realice de las actuaciones convenidas, el logotipo del Ayuntamiento de Durango.

.- Redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales los anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen, debiendo proceder de igual manera con la propaganda sea oral o escrita. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de las actividades subvencionadas.

.- Justificar la subvención recibida, mediante la presentación de documentos acreditativos correspondientes, y con anterioridad al **26 de febrero de 2021.**

**FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.-** El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a la BANDA DE MUSICA TABIRA se realizará de la forma siguiente: 80% la última semana del mes de entrada en vigor del Convenio. El 20% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este Convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.

**DURACIÓN.-** El presente Convenio quedará extinguido el 26 de febrero de 2021.



**HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.-** TABIRA MUSIKA BANDAK hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzahitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

**BATERAGARRITASUNA.-** Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.

**ARAUDI OSAGARRIA.-** Deialdi hau Durangoko Udalak 2020ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran onartutako 2020-2023 diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

Adostutakoaren lekuko, partaideek honako hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**EXTINCIÓN.-** El incumplimiento de los compromisos adquiridos por la BANDA DE MUSICA TABIRA producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.

**COMPATIBILIDAD.-** La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

**NORMATIVA COMPLETIVA.-** La presente convocatoria está recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 aprobado en Pleno por el Ayuntamiento de Durango el 29 de enero de 2020.

En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

Y para que conste en señal de conformidad, afirmándose y ratificándose en el contenido del presente documento, que prometen cumplir leal y fielmente, lo firman por duplicado ejemplar a un sólo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados



**KONTUAN IZANDA** aipatutako araudia bat datorrela Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzarekin.

**KONTUAN IZANDA** aipatutako araudia bat datorrela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorak ezartzen duenarekin.

Aurrekontua betearazteko udal araudiko 30.4.C) eta 33 oinarriek ezartzen dutenarekin bat etorritz.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuen 10/2003 Foru Aginduak ezartzen duenarekin bat etorritz, zeinaren bidez, eskumenak erregulatzen baitira gastu-fase ezberdinei dagokienez.

Ikusirik badela aurrekonturik aipatutako dirulaguntza-programa aurrera eramateko, eta aipatutako 10/2003 Foru Aginduaren IV idazpuruak zehaztu duen kontu-hartzailetzak egin beharreko kontrola egin ostean.

#### **ERABAKI DUT**

1. Deialdiko oinarriak onartzea.
2. Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8.2 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokoraren 9.3 artikulua ezartzen dutenarekin bat etorritz.
3. Gastua onartzea A fasean, 10/2003 Foru Aginduaren 41.1 artikulua eta aurrekontua betearazteko udal araudiaren 28. oinarriak ezartzen dutenaren babesean eta, beti ere, aintzat hartuta dirulaguntza programaren zenbatekoa eta aurrekontu-partida.

**CONSIDERANDO** que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango.

**CONSIDERANDO** que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General del Subvenciones.

De acuerdo con lo preceptuado en las Bases 30.4.c), y 33 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

De acuerdo con lo indicado en el artículo 41 de la Norma Foral 10/2003 Presupuestaria de Entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia, por el que se regula la competencias en las diferentes fases del gasto.

Existiendo consignación presupuestaria para llevar adelante el programa de subvenciones descrito y habiéndose realizado el preceptivo control interventor descrito en el Título IV de la mencionada Norma Foral 10/2003.

#### **HE RESUELTO**

1. Aprobar las Bases de la Convocatoria.
2. Ordenar la publicación de la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia, de acuerdo con lo indicado en los artículos 8.2 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango y 9.3 de la Ley 38/2003 de la Ley General de Subvenciones.
3. Autorizar el gasto en fase A al amparo de lo indicado en el artículo 41.1 de la Norma Foral 10/2003 y en la Base 28 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria de este Ayuntamiento, por el importe y en la partida que se indica en el texto del programa de subvención.



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma el Teniente Alcalde delegado, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.